

2.MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

“Toque mágicon” sortuko ditugun jokoak ikusmen-desgaitasuna duten bezeroentzat, familientzat, elkarreentzat edo baita ere urritasun hori duen ikasleren bat duten ikastetxeentzat bideratuta egongo dira. Hala ere, jokoak egokituta egon arren, edonork erabili ahal izango ditu. Integrazioa eta berdintasuna sustatzeko.

Esan bezala, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzat baita itsuentzat sortutako enpresa da, horretarako gure bezeroen arazoaren ezaugarriak ikertu izan ditugu. Honako hauek dira:itsuak; ikusmen-pertzepzio txikia, aldiz, beste zentzu batzuk garatzen dituzte, batez ere ukimena, usaimena eta entzumena. Bestalde, ikusmen txikia duten pertsonak ikusmen lausoa edo lainotua izaten dute, ikusmen zentrala edo periferikoa galtzen dute, argiaren sentikortasuna izaten dute eta ikusmen-distortsioak edo orbanak izaten dituzte. Jakina, eguneroko zereginetarako arazoak ditu eta, horregatik, egokitzea behar du bere ingurunean.

Arlo horretan lan egitea erabaki dugu, uste dugulako eta, gainera, hainbat ekimenetan izandako esperientziengatik eta gure egunerokoan sentitu dugunagatik pertsona horiek ez direla asko integratzen gizartearen. Horregatik, integrazio hori gure produktuen bidez txiki-txikitatuz egin ahal izateko laguntza emateko beharra sentitu dugu. Gure bezeroek gizartearen bazterketa sentitzen dute, eta, horregatik, gure enpresari esker barneratuago sentitzen dira; izan ere, haiek kontuan hartzea bilatzen dute.

Horregatik, laburbilduz, gure merkatu estrategia, marketing kontzentratua izango da. Esan dugunez bezala, produktuak publiko zehatz bati zuzenduta egongo direlako, batez ere, kideitsuak dituzten familientzat.